# 2003

# Jardueren Memoria

CES

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico y Social Vasco

# Jardueren Memoria

CES

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

# Aurkezpena

*Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2003an zehar egindako jardueren txostena aurkezten dizuet, atsegin handiz.*

*Lanean bizi-bizi jardun duguneko urtea izan da, Batzordearen jardueraren ikuspegitik oso ontzat baloratu duguna. Ziur nago argitalpen honen irakurketak gure erakundearen lana pixka bat ezagutzen lagunduko dizuena: gure barruko eta kanpoko jarduna.*



*Barrukoari dagokionez, urtea dinamikoa izan da Euskadiko EGABrentzat. Osoko Bilkurak, Batzorde Iraunkorrak, Ekonomia Batzordeak, Gizarte Batzordeak eta Ekonomia eta Gizarte Gaietako Txostena prestatzeko Batzordeak zenbatuta, berrogeita hamar bilera baino gehiago izan ditugu. Topaketa horien ondorioz, zazpi irizpen eman ditugu, EAEko Gizarte eta Ekonomia Egoerari buruzko Urteko Txostena argitaratu dugu, eta bost ikerkuntza lerro desberdin sustatzen eta horietan sakontzen jarraitu dugu. Geure ekimenez egindako azterlanak dira, 2004ko lehenengo seihilekoan hedatzeko prest izango ditugunak.*

*Kanpoko jarduerari dagokionez, beste lurralde batzuetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin eskualdeen arteko lankidetzaren ondorioz antolatutako hainbat bileratan hartu dugu parte. Aipagarriak dira, besteak beste, Arku Atlantikoko ekonomia eta gizarte eragileen nazioez gaindiko sarearenak (RTA), 2003an lehendakariordetza geurea izan baita. Gizarte zibilak Europa mailako eta eskualdeen mailako politiketan parte hartzeko bide berriak zabaldu beharrari buruzko eztabaida eragina izaten ari da eta, horri esker, Europako esparruko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen artean erakundeen arteko harreman gehiago antolatzen dira.*

*2003 urtean gure Batzordeak generoko zeharkako politika berrien gaineko nazioarteko hainbat mintegitan hartu du parte. Beste herrialde batzuetan halako ohiturekin iritsi diren emaitza onek gure Batzordearen baitan genero politiken osoko aplikazioaren gainean gogoeta sakona egiteko interesa piztu zuten. Gogoeta horren ondorioz "Aukera berdintasunetik generoko zeharkako politiketara" jardunaldia antolatu eta egin genuen, gure Batzordekideei eta Batzordeko langile teknikoei zuzenduta.*

*Ez nuke 2003 urtearen azaleko laburpentxo hau Adituen Taldekoa genuen gure batzordekide José Luis Cereceda, Joselu, hemen esaten genionez, hiltzean izan dugun galera izugarria gogoratu gabe amaitu nahi. Izan daitezen lerro hauek haren oroimenez, eta bere ardura bikainaren eskerronez, harenak bezalako lan eta ekarpenak gure Batzordearen barruko eztabaidaren aberasgarri izan baitira azkeneko urteotan.*

*Oroitzapen berezi honekin amaituko dut Euskadiko EGABko 2003ko gertakaririk garrantzitsuenen gainbegiraketa. Eskerrik asko lan talde osoari, eta Batzordekideei, beren ardurarengatik eta Batzordeari eman dioten bultzadarengatik.*



***RAFAEL PUNTONET DEL RÍO***
***Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako***
***Batzordeko Lehendakaria***

# Ziurtagiria

*Nik, Manuel Aranburu Olaetxeak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen idazkari nagusiak, ondokoa*

*ZIURTATU DUT*

*Lehena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, apirilaren 2an egindako bilkura arruntean, besteak beste honako erabaki hau hartu duela:*

*Lehenengoa, "Bildutako kide guztien adostasunez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jardueren Memoria, 2002ko ekitaldiari dagokiona, onestea".*

*Bigarrena, argitalpen honek erabaki horretan aipaturiko Batzordearen Osoko Bilkurak onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik jasotzen duela*

*Eta, ondore egokiak izateko, ziurtagiri hau sinatu dut, Bilbon, 2004ko apirilaren 2an.*

***MANUEL ARANBURU OLAETXEA***
***Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako***
***Batzordeko Idazkari Nagusia***

# Aurkibidea

I. KAPITULUA.– EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA ........ 9
- Historia ........ 10
- Zer da EGAB? ........ 11
- Nork osatzen du? ........ 11
- Bere zereginak ........ 12

II. KAPITULUA.– BATZORDEAREN LEGEAN EZARRITA DAUDEN FUNTZIOEN EGINTZA ........ 13
- Batzordearen kontsultara jarritako eta irizpena emandako arazoak ........ 14
- EAEko Memoria sozio-ekonomikoari buruzko txostena lantzea ........ 15
- Geure ekimenezko Txostena prestakuntza ........ 16
- Euskadiko EGABk antolatutako jardunaldiak ........ 19

III. KAPITULUA.– ERAKUNDEAREN JARDUERA ........ 22
- Bisitak eta agerraldiak ........ 23
- Autonomia Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin ........ 32
- Mugaz harantzagoko lankidetza ........ 35

IV. KAPITULUA.– GIZA BALIABIDEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN KUDEAKETA ........ 46
- 2003ko Aurrekontua ........ 47

V. KAPITULUA.– EUSKADIKO EGABREN DOKUMENTAZIO ETA PRENTSA ZERBITZUA ........ 48
- Hemeroteka ........ 49
- Biblioteka ........ 50
- Argitalpenak ........ 51
- Web orrialdea Interneten ........ 52
- Dokumentazio zentroa ........ 53
- Euskadiko EGAB eta Komunikabideak ........ 57

VI. KAPITULUA.– EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI APLIKA DAKIOKEEN LEGERIA ........ 62

# Eranskinak

I. ERANSKINA.– EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANOEN ETA BATZORDEEN OSAERA ........ 66

II. ERANSKINA.– EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANO, BATZORDE ETA LAN TALDEEK EGINDAKO BILKURAK ........ 75

III. ERANSKINA.–2003KO IKUSKARITZA TXOSTENA ........ 87

# I

## Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

## HISTORIA

Oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aurrekariak lehenengo mundu gerra amaitu osteko lehen urteetakoak dira. 1919an Lanaren Nazioarteko Bureau-a sortu zen; nazioarteko biltzar horretan, gobernuek, langileek eta enpresaburuek parte hartu zuten, denen artean lan-baldintzak hobetuko zituen nazioarteko legeria egiteko.



Hortik abiatuta, lehenengo ituntze-tresnak sortu ziren Europan; horiek izan ziren oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aurrekariak. Lehenengo erakundea Frantzian sortu zen, 1925ean, eta, geroago, antzekoak eratu ziren Europako beste herrietan, bereziki, bigarren mundu gerra amaitu ostean.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak, bere organo gorenen artean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea egin zuen. Funtsean, bateratuak dira denak, euren izaeran eta zereginetan: aholkularitza-organoa da, eta bere helburua da gizarte- eta ekonomia-interes askotako ordezkariak parte hartzea gobernuen politika ekonomikoan, eta, aldi berean, aukera ematea euren artean elkarrizketan eta lankidetzan jarduteko.

Era berean, Kontseiluak ez du jarrera pasiborik; ostera, berezko ekimena du gobernuek aintzat hartu beharko dituzten iradokizunak edo ebazpenak egiteko. Aholkularitza-organo hori autonomoa da, ez da Gobernuaren menpekoa; eta bere txostenak, lotesleak ez izan arren, askotan aginduzkoak dira, eta beti dira aintzat hartzeko moduko iritziak.

## ZER DA EGAB?

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea* Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren aholkularitza-erakundea da, eta bere helburua hainbat ekonomia eta gizarte-arduradunek Euskal Herriko politika ekonomikoan parte hartzea da. Kontseiluak berezko nortasun juridikoa du, EAEko Administrazioak duena ez bezalakoa, eta erabateko gaitasuna eta askatasuna ditu bere zereginak betetzeko.

Ekonomia eta finantzazko autonomiaren irizpidetik, Kontseiluak bere aurrekontua onartzen eta betearazten du; aurrekontua finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitzen dizkioten kopuruak erabiltzen ditu.

Kontseiluak Bilbon du egoitza; eta, legez 1984an sortu zen arren, ez zen abian jarri 1997ra arte.

## NORK OSATZEN DU?

- Batzordea hogeita hamabi lagunek osatzen dute, eta ondoko eran dago eratuta:

1. Zortzi batzordekide, sindikatuen erakunde eta konfederazio nagusien ordezkaritzan
2. Zortzi batzordekide, enpresaritza-konfederazioen ordezkaritzan.
3. Zortzi batzordekide, honako hauen ordezkaritzan: merkataritza-, industria eta itsasketa-ganberak, aurrezki-kutxak eta finantza-erakundeak; kooperatibak; lan-sozietate anonimoak; arrantza-erakundeak; nekazaritza-erakundeak; kontsumitzaileen erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
4. Zortzi aditu, prestakuntza, eskarmentu eta askatasun handikoak.

- Batzordeak lehendakaria eta idazkari orokorra dauzka, eta, gainera, teknika, administrazio eta dokumentazio zerbitzuak ere baditu.
- Batzordekideak lau urteko denboraldirako izendatzen dituzte, baina berriro izenda ditzaten aukeraz.
- Erabakiak hartzeko organo gorena osoko bilkura da. Bere zereginen artean, besteak beste, lehendakariari proposatzen dio lehendakari kargua bete behar duen laguna nor den, idazkari orokorra izendatzen du, lan-batzordeak sortu eta ezabatzen ditu, eta Erakundearen aurrekontuak, urteko gizarte eta ekonomia gaietako eta jardueren txostena, eta batzordeek bidalitako irizpenen, ebazpenen eta txostenen aurreproiektuak onartzen ditu.



* 4/1984 Legeak, azaroaren 15ekoak, gero beste bi legek (ekainaren 30eko 15/1994 Legeak eta ekainaren 27ko 9/1997 Legeak) aldarazi dutenak, sortu zuen

## BERE ZEREGINAK

- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten lege-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearena izan ezik.
- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten dekretu-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Jaurlaritzaren iritziz, garrantzi berezia badute.
- Jaurlaritzari galderak egingo dizkio, bere eskumeneko gaien gainean.
- Irizpenak, ebazpenak edo txostenak egingo ditu, bere ekimenez edota Jaurlaritzak eskatuta, aurreko ataletan aipatutako esparruetan.
- Legebiltzarrek egiten dituen kontsultei erantzuna emango die.
- Parte hartuko du Jaurlaritzak egingo duen planean, Autonomia Erkidegoko arlo publikoko jarduera ekonomikoaren gainekoan.
- Urtero txosten bat egingo du, eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari aurkeztuko die; hor, EAEko ekonomia- eta gizarte-egoeraz duen iritzia azalduko du.

# II

# Batzordearen Legean aurreikusita dauden eginkizunak gauzatzea

# Batzordearen Legean aurreikusita dauden eginkizunak gauzatzea

Indarreko legedian aurreikusitakoaren arabera, 2003an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak zazpi irizpen eman zituen, berari kontsultatutako gaien gainean. Era berean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari EAEren ekonomia eta gizarte egoerari buruzko bere iritzi eta oharrak azaltzen dituen Urteko Memoria ere aurkeztu zien.



## BATZORDEAREN KONTSULTARA JARRITAKO ETA IRIZPENA EMANDAKO GAIAK

Hona hemen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2003an emandako irizpenak:

- 1/2003 IRIZPENA, Euskadiko Garraio Agintaritzako Lege Aurreproiektuaren gainean.
- 2/2003 IRIZPENA, Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca" (ETS-RFV) erakundea sortzeko Lege Aurreproiektuaren gainean.
- 3/2003 IRIZPENA, aurretiazko Borondateen Euskadiko Erregistroa sortzen duen Dekretu Proiektuaren gainean.
- 4/2003 IRIZPENA, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutu Legearen Aurreproiektuaren gainean.
- 5/2003 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko lurra babesteko Lege Aurreproiektuaren gainean.
- 6/2003 IRIZPENA, Erakundeen Arteko 2003-2006rako Enplegu Planaren Zirriborroaren gainean.
- 7/2003 IRIZPENA, Kultura ekintzaileari eta Enpresak sortzeari laguntzeko Dekretu Proiektuaren gainean.

## EAEko MEMORIA SOZIO-EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA LANTZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte eta ekonomia gaietako 2002eko Memoria 2003ko irailaren 30an egindako ohiko bileran onetsi zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak. Era honetan, organo honek, beste eginkizunen artean, urteroko memoria bat egin eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari emateko legezko manua betetzen da.

Urte txosten honetan Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen gizarte eta ekonomia egoerari buruzko daturik garrantzitsuenak aztertzen dira, eta EGABk ordezkatzen dituen talde eta erakunde ezberdinek ados jarritako eta kapitulu deskribatzaileak aurretik aurkeztutako ondorioak, iritziak eta proposamenak azaltzen dira.

## Seigarren Memoria

Lan honen prestakuntzaz arduratu den Batzordeak Joaquin Ochoa izan du buru, eta honakoek osatu dute: Mikel Noval (ELA), Raúl Arza (UGT), Antxón Tomasena (CCOO), Rafael Izquierdo (LAB), Felicísimo Ayastuy (CONFEBASK),





*2002ko Txosten Sozio-ekonomikoaren edukiak aurkeztu zireneko prentsaurrekoa.*

Jaime Fernández Alcedo (CONFEBASK), Celina Menaza (Kontsumitzaileen Elkartea), Javier Muñecas (ASLE), Juan Luis Martínez (Merkataritza Ganbarak), Iñaki Beristain (Finantzaketa Erakundeak), Carmen Gallastegui, Yolanda Jubero eta Mª Luz de la Cal (EEGABren Adituen Taldeko batzordekide direlako) eta Idazkari Tekniko Patxi Sasigain jaun-andreek. Seigarren memoria honetako edukiak aho batez onetsi ziren.

EAEn 2002an izandako Ekonomia eta Gizarte Egoeraren gaineko Txostenean, *Laburpena eta Ohar Nagusiak* atalaz gain, honako atal nagusiak ere badaude:

- *Ekonomia EAEn, 2002an,* non ekonomia jarduera arloka eta jardueraka aztertzen den. Gainera, lan merkatuaren egoeraren azterlan xehatua ere egiten da, besteak beste;
- *Biztanleriaren bizi baldintzak,* eta ongizate maila, non etorkien kolektiboaren egoera eta emakumeen arazoak aztertzen diren, beste gai batzuen artean;
- Gizarte babesa eta bazterkeria EAEn, non gizarte babesaren egoera, desberdintasun edo bazterkeria egoerak, baita horietara xedatutako baliabideak ere islatzen diren eta, azkenik,
- *EAEn 2002an izandako legegintza jarduera.*



## GEURE EKIMENEZKO TXOSTENEN PRESTAKUNTZA

2003an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sei txosten desberdin prestatzen ari zen. 2002an heltzea erabaki zen lan ildo berria da hau, aukeratutako gaietan sakondu ahal izateko, guztiak gure herriaren ekonomia eta gizarte garapenerako bereziki garrantzitsuak diren gaiak baitira. 2004an zehar biribilduz joango diren azterlan konplexuak dira. Hartara, EGABk iritzi sortzaile gisa duen eginkizuna garatuko du, Euskadiko EGABren gaineko ekainaren 27ko 97/1997 Legearen 3.d) artikuluan aitortzen zaion eginkizuna, alegia. Hona hemen aztertzen ari diren gaiak:

### 1. Enplegurako Politika Aktiboak EAEn eta EBn

Helburua:

- EAEn dauden Enplegurako Politika Aktiboen datu nagusiak ahalik eta xehatuen ateratzea.
- EAEn dagoen enplegurako politika aktiboaren gaineko informazioa Eurostaten tipologiaren arabera ordenatzea.
- Europako gure inguruneko herrialdeekin konparaketa homogeneoak egitea.
- Informazioa Europako estandar batzuen arabera sistematikoki jasotzeko prozesua abian jartzea, etorkizunean errepikatu ahal izateko modura, horri esker honakoak egingo direlako:



*Erakunde desberdinekin eta "Enplegurako politika aktiboak EAEn eta EBn" azterlanaren arduradunekin izandako lan bileraren irudia (2003ko otsaila).*



– Baliabideen Mapa argituko da.
– EAEn EPArako bideratutako baliabideen bolumenaren gainean denboran zeharreko informazioa etengabe edukiko da.
– Egokitasuna aztertu eta ondoreak baloratuko dira.
– Onuradunen tipologia hobeto ezagutuko da.

## 2. Gizarte politikak EAEn eta EBn

Helburua:

- Ongizatearen Egoerak Europan izan duen bilakaera eta azkeneko hamarkadetan eredu desberdinen gainean piztutako eztabaidak aztertzea.
- Europa Gupidatsuaren gaineko gogoeta egitea: Gizarte Politika Gizarteratzeko Politika modura.
- Europako Batzordeak gizarte politikan dituen jarraibideak eta batez ere Nizako Itunaren ondoriozkoak aztertzea.
- EBko herrialde nagusiek burututako Ekintzako nazio Plan desberdinak aztertzea, baita Gizarte Politikaren gaineko Ohiturarik Onenen Eskuliburua prestatzeko beste adibide esanguratsu batzuk ere.

- EAEko administrazio desberdinetako eskumenen banaketa eta Gizarte Politiken garapena aztertzea.
- EBn erabilitako Pobrezia eta Bazterkeria adierazleak aplikatu eta EAEko emaitzak Europako herrialdeko emaitzekin konparatzea.
- Europa mailako gizarte politiken alorreko ekimenak EAEn daudenekin konparatzea.

## 3. Soslai profesional berriak Jakintzaren Aroan

EGABk bere ekimenez heldu dion Azterlan honen helburua honakoaren jakintzan sakontzea da:

- Informazioaren Gizarteak EAEko enpleguaren gainean dituen inplikazioak
- Europan gai horretan dauden orientazioak.
- EAEn eskatu eta eskaintzen den enpleguaren soslai profesionalen eta prestakuntzaren bilakaera (zenbakiak eta osaketa jakintza, gaitasun, trebetasun, eskatutako prestakuntza maila, eta abarrei dagokienez), gertatzea daitekeen desdoitzeak, eta etorkizunean espero liratekeenak (eta nola bateratzen den hori oraindik altua den langabezia tasarekin), eta urri izan daitezkeen profesional motak (kopurua, prestakuntza mailak, eremu edo eskualdeak, arlo teknikoak, eginkizunak, ikasketak, eta abar.).
- Enplegu berriko beharrizan horietan eragina duten faktoreak eta lanpostu horiek betetzea zailtasun duten traba edo oztopoak.
- EAEn dagoen ikasketa eskaintza (titulazioak, etengabeko prestakuntza, eta abar), hezkuntza/prestakuntza sistemaren erronka hauen erantzuna, enpresen beharrizanetara edota gizartearen eta lan merkatuaren prestakuntza beharrizanetara egokitzen diren ala ez.

## 4. EAEn enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak.

Helburua:

- Enplegua lortzeko zailtasunik handienak zein diren definitzea.
- Enplegua lortzeko arazoak dituzten kolektiboen ezaugarriak finkatzea
- Enplegua zergatik lortzen ez den eta enplegua lortzen zer-nolako pizgarri-estimuluk lagun lezaketen diagnostikatzea.

## 5. Garapen iraunkorra, Ingurumen alorreko politika publikoen erronka. EAEn ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdiak batuko dituen garapen iraunkorreko estrategia jorratzeko ildoak definitzeko azterlan konparatua.

Helburua:

- Europar Batasunaren garapen iraunkorreko Estrategiaren Azterketa, elementu eta aplikazio guztietan.
- Gure gizarte eta ekonomia inguruneko herrialde eta eskualdeetan diseinatu eta abian jarritako Garapen Iraunkorreko Estrategia desberdinak aztertzea.
- Egindako konparaketazko azterlanaren testuinguruan, EAEn dagoen Garapen Iraunkorreko Estrategiaren ebaluazioa, ingurumen aldagaia sartzea bereziki azpimarratuz.
- EAEko Garapen Iraunkorrerako gerorako Estrategia bat prestatzeko ildoak definitzea, ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdiak bilduz.
- Ondorioak eta amaierako gomendioak.

## 6. EAEn etxebizitza eskuratzeko dauden arazoak



Helburua:

- Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza eskuratzea zailtzen duten zioak sakonki ezagutzea.

Erabakitako gai zerrendatik lau 2002an hasi ziren: "Gizarte Politikak EAEn eta EBn", "Enplegurako politika aktiboak EAEn eta EBn", "Soslai Profesional berriak Jakintzaren Aroan" eta "Enplegua lortzeko kolektibo bereziak". "Garapen iraunkorra, politika publikoen erronka" eta "EAEn etxebizitza eskuratzeko dauden arazoak" 2003an esleitu ziren. Txosten guztiak 2004an zehar burutuko dira.

## EUSKADIKO EGABk ANTOLATUTAKO JARDUNALDIAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2003an generoko zeharkako politika berrien gaineko hainbat nazioarteko mintegitan parte hartu zuen. Beste herrialde batzuetan halako ohiturekin iritsi diren emaitza onek gure Batzordearen baitan genero politiken osoko aplikazioaren gainean gogoeta sakona egiteko interesa piztu zuten. Gogoeta horren ondorioz "*Aukera berdintasunetik generoko zeharkako politiketara"* jardunaldia antolatu eta egin genuen.



*Jardunaldia Batzordearen lokaletan eman genuen.*

## "Aukera berdintasunetik generoko zeharkako politiketara"

Jardunaldia genero kontuetan adituak diren Garbiñe Mendizábal eta Begoña Murguialday Batzordekideek eman zuten. Lehendakaria eta Idazkari Nagusiaz gain, EGABko lantalde desberdinetako batzordekideak eta Batzordeko teknikariak ere izan ziren.

Jardunaldiaren helburu nagusia emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaz gogoeta egin eta ikuspegi hori, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen kudeaketan eta eskaintzen dituen zerbitzu eta lanetan, kalitate osagai modura eranstea izan zen. Gainera, berariazkoago beste helburu batzuk ere finkatu ziren, besteak beste, Berdintasun Politiken jatorriaren gaineko azterketa sakonagoa, Ekintza Positiboak eta genero zeharkakotasuna; genero politiketako oinarrizko kontzeptuak erabiltzen ikastea; eta EAEn genero bereizkeriari aurrea hartu eta erauzteko dauden bitartekoak erabiltzea. Gizarte eta ekonomia eragileak ere berdintasun araudien aplikazioan inplikatu behar direla nabarmendu zen, era berean eta, EGABren beraren barruko kudeaketa generoaren ikuspegitik berrikustera begira, hainbat ariketa praktiko egin ziren.



*Garbiñe Mendizabal genero gaietan adituak hitz egin zuen unea.*





Jornada

"De la igualdad de oportunidades a las políticas transversales de género"

Bilbao, 28 de noviembre de 2003

Lugar: Salón de Plenos
Horario: De 9.00h a 14.00h
Imparte: MURGIBE, S.L. Consultoría Igualdad de Oportunidades
Organiza:



Programa

MARCO CONCEPTUAL
- Conocer el marco conceptual que sustenta el análisis de género.
- Analizar las implicaciones de su incorporación en las políticas públicas.

MARCO NORMATIVO
- Conocer e identificar la normativa jurídica en materia de Política de Igualdad de Oportunidades.
- Conocer el recorrido histórico en materia de igualdad.

DE LA IGUALDAD A LA TRANSVERSALIDAD DE GÉNERO
- Conocer los fundamentos e implicaciones de conceptos como la Discriminación directa e indirecta, Acción Positiva, etc.
- Despejar dudas y reticencias sobre dichos conceptos.
- Interpretar el concepto y la implicación de la transversalidad.

# III

## Erakundearen jarduera

# Erakundearen jarduera

Ordezkatuta dauden Antolakunde, Entitate eta Elkarteek beren arteko harremana biziagotu zuten Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen barruan. Lan Batzordeez gain, Batzordekideek informazio, prestakuntza eta halako bileretan sarri hartu zuten parte. Era berean, Batzordeko Lehendakariak batzordekide guztiekin eta banan-banan hitz egin eta harremanak izateko bidea sakon jorratu zen.

Erakundearen ordezkaritzari dagokionez, Batzordeko arduradunak EAEn aritzen diren erakunde, enpresa, komunikabide, antolakunde eta elkarte desberdinek gonbidatuta, ekitaldi, kongresu, mintegi eta mahainguru ugaritan izan ziren.



Era berean, EGABko teknikariek, urtean zehar, gure erakundean egiten duten lanaren garapenerako interesgarri ziren jardunaldi, mintegi, ikastaro edo foro interesgarrietan parte hartu zuten.

Mugaz Harantzagoko lankidetza eta autonomien esparruetako eta Europa mailako beste Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzorde batzuekin izandako topaketak ikaragarri gehitu ziren 2003an, kapitulu honetan jasotzen denez, bilera eta bisita ugari egin ziren-eta.

## BISITAK ETA AGERRALDIAK

Euskadiko EGABk ere erakundeen aldetik bisita eta agerraldi ugari izan zituen, bai hona etorritakoenak bai guretik joandakoenak, 2003 urtean zehar. Hona hemen esanguratsuenak:

### Gurean izandako bisita eta agerraldiak

- ***2003/01/23 – Honakoen agerraldia:***

*Antonio Aiz, Garraio Sailburuordea, Aitor Uriarte, Garraio Zuzendaria; José María Olazaguirre,*

*Azpiegitura Zuzendaria eta Joseba Iñaki Gurtubai, Zerbitzuen Zuzendaria.*



*Jaurlaritzako Garraio saileko arduradunak, Euskadiko EGABn egindako agerraldian.*

Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailaren arduradunak Euskadiko EGABko Ekonomia Batzordearen aurrera Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legearen aurreproiektuaren edukiak sakon azaltzera agertu ziren. Testu horrez gain, Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviara Vasca (ETS-RFV) zuzenbide pribatuko herri erakundea sortzen duen Lege aurreproiektua ere aurkeztu zuten. Dokumentu hori Batzordeari bidali zitzaion, eta Batzordeak gerora irizpena eman zion

- **2003/03/14- Honakoen agerraldia**

*Javier Deán, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordea; Borja Jáuregui, Hondarribiako Alkatea eta EUDELeko Batzorde Exekutiboko kidea, eta Antonio Corral IKEIko kide--aholkularia.*

EGABko Gizarte Garapeneko Batzordeak egoki iritzi zion etxebizitza politikak gauzatzearen arduradunak eta gai horretako adituak gonbidatzeari, etxebizitzak EAEn duen egoeraren gainean denok batera gogoeta egiteko. Gaia hain denez konplexua bi lan bilera egin ziren 2003ko martxoan. Lehenengoa hau izan zen, non Etxebizitza Sailburuordeak *lurraren arauketa eta horrek etxebizitzan duen eragina izan* baitzituen hizpide nagusi; Hondarribiako Alkate Borja Jáureguik eta IKEIko kide--aholkulari Antonio Corralek Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren merkatuaren gaineko diagnosi bana aurkeztu zizkiguten.



*Javier Deán Etxebizitza Sailburuordearen hitzaldia.*



- **2003/03/28- Honakoen agerraldia:**

*Carmen Trilla; Aholkularia; Ignacio San Martín, BBVAko aditua; Nekane Jurado, Elkartzen eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari modura eta Alfonso Vázquez, Espainiako Etxebizitza Kooperatiben Konfederazioko Lehendakaria.*

Etxebizitzaren gaiko aditu hauetako bakoitzak bere azalpen eta gogoetak garatu zituen Gizarte Batzordeko kideen aurrean, EAE, Estatu eta EBko etxebizitzako politika publiko eta sozialen gaineko erreferentzia konparatuetan oinarrituz.

- **03/05/29- Honakoen bisita:**

*Nicolás Álvarez, Asturiaseko EGABko Lehendakaria eta Javier Jiménez Asturiaseko EGABko Idazkari Nagusia.*

Euskadiko EGABko Lehendakaria eta Idazkari Nagusia Asturiaseko beren homologoekin egon ziren. Bi erakundeek eskaintzen dituzten jarduera eta zerbitzuen berri eman zioten elkarri. Besteak beste, Mugaz Harantzagoko lankidetza eta autonomia esparruetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen arteko topaketak izan zituen hizpide bileran.



*Carmen Trilla aholkularia, Gizarte Batzordearen aurreko agerraldian.*

- **25/06/03 - Honakoaren bisita:**

*Koro Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordea.*

Lan bilera Turismo Arduradunarekin, Akitaniako EGABrekin "EAE eta Akitaniaren artean turismo iraunkorra garatzeko" elkarlanean aritzeko erabakiaz hitz egiteko.

- **03/08/19- Honakoen bisita:**

*Angeles Iztueta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburua, Jorge Arévalo, Lanbide Heziketa eta Ikaskuntza Etengabeko Sailburuordea; Abel Ariznabarreta, Hezkuntza Sailburuordea eta Amaia Goikoetxea, Prentsa Burua.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburua, bere lan taldearekin batera, Euskadiko EGABren egoitzaraino etorri zen, Batzordeak egiten duen lana gertuagotik ezagutzera.

Bisita hori lehenago, 2003ko uztailean, EGABk eta Hezkuntza Sailak Lakuan izandako bileraren ondorioz etorri zen (ikus ... orr.), Sailburuak orduan gure egitasmo batzuen gaineko interesa erakutsi zuen-eta.

1. Euskadiko EGABren aurkezpen orokorra.
2. Eusko Jaurlaritzak Euskadiko EGABren kontsulta pean jarri zituen eta irizpenak egin zitzaizkien hainbat gairen gaineko txostena jasotzea (2000-2003 tartea).

3. Geure ekimenezko azterlanen banan-banako aurkezpena.
4. Gure Batzordeak parte hartzen dueneko Nazioaz Harantzagoko lankidetzako egitasmoen gainbegirada: RTA, Nazioaz Harantzagoko Sare Atlantikoa, Kabotaia sustatzeko egitasmoa eta Akitaniako CERSekin itundutako bi aldeen lankidetza.

- **03/11/24-25 Honakoen bisita:**

*Robert TOLLET, Belgikako Ekonomiako Kontseilu Nagusiko Lehendakaria; Luc DENAYER, Idazkari Nagusia eta Ton HARDING, Idazkari Nagusiaren Ondokoa.*

Belgikako Ekonomiako Kontseilu Nagusiak bisita itzuli zion Euskadiko EGABri, gure Batzordearekin Belgikan 2003ko maiatzean izandako lehenengo erakunde topaketa baten ostean (ikus. .... orr.). Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, bisita zela-eta, hainbat topaketa eta harreman antolatu zituen, Belgikako ordezkaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta gizarte errealitatea sakon ezagutzeko aukera izan zezan. Lan handiko bi egun bizi-bizi izan ziren, eta Belgikako Ekonomiako Kontseilu Nagusiko arduradun gorenek Euskadiko EGABko batzordekideekin egoteko beta izan zuten. Elkarrekin iritziak trukatu eta denen intereseko gaiez eztabaidatzeko abagunea izan zuten.





*Lan bilera Hezkuntza Sailaren arduradunen eta Euskadiko EGABren Arduradunen artean.*



*Juan Miguel Bilbao eta Zuriñe Embid Belgikako Ekonomiako Kontseilu Nagusiaren ordezkaritzarekin.*



Honako lan bileretan ere parte hartu zuten:

1. "EAEko finantzaketa eta zerga araubidea." Ogasun eta Finantza Sailburuorde Juan Miguel Bilbao, eta Kupo eta Finantzaketa Ekarpenetarako Zuzendari Zuriñe Embid etorri ziren.



*Konrado Mugertza Euskadiko EGABko bere hitzaldian.*





*Belgikako ordezkariak SPRIren arduradunen azalpenei adi.*

2. "Hezkuntza eta Prestakuntza EAEn", Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza berrikuntzarako Zuzendari Konrado Mugertzaren eskutik.

3. "EAE inbertsioen erakarle gisa." Honetarako Enrique Marco Gardoqui, SPRIko Idazkari Nagusia eta Jean Pierre Iturbide, SPRIren Nazioarterako Gaietarako Zuzendaria izan genituen

4.- Lan bilera CONFEBASK Euskal Enpresarien Konfederazioko arduradun gorenekin.

4. Lan bilera CONFEBASK Euskal Enpresarien Konfederazioko arduradun gorenekin.

## Kanpoko bisita eta agerraldiak

- **08/04/03 Bilera Eusko Jaurlaritzan.**

Erakunde bilera Eusko Jaurlaritzan Idoia Zenarruzabeitia Lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioko Sailburuarekin, eta Joseba Andoni Alcalde, Lehendakariordetzako Idazkari Nagusiarekin. EGABren aldetik Lehendakaria eta Prentsa eta Dokumentazio Arduraduna izan ziren.

Honako gaiak jorratu zituzten:

1. Euskadiko EGABren jardueren balantzea.
2. Eusko Jaurlaritzak EGABri egiten dizkion kontsulten kopuruaren eta horien ondoriozko eraginaren analisia.
3. Sei hilean behineko ekonomia txostenen eskaria, Batzordearen Legearen 3.3. artikuluan jasota dagoen bezala.
4. Jaurlaritzaren baitan Batzordearen egiten den lanaren ezagutza eta garrantzia hobetzeko bideari buruzko iritzien berri elkarri ematea.



- **03/05/13 Bilera Eusko Jaurlaritzan.**

Erakunde topaketa Eusko Jaurlaritzaren egoitzan José Jon Imaz Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuak eta Iñaki Telletxea Industria Berrikuntza eta Gara-



*Euskadiko EGABko LehendakariA Idoia Zenarruzabeitia Lehendakariordearekin, Lakuan izandako bileran.*

peneko Sailburuordeak Rafael Puntonet eta Manu Aranburu, Euskadiko EGABko Lehendakariarekin eta Idazkari Nagusiarekin.

Honako gaiak jorratu zituzten:

1. Euskadiko EGABren jardueren balantzea.
2. Eusko Jaurlaritzak EGABri egiten dizkion kontsulten kopuruaren eta horien ondoriozko eraginaren analisia.
3. Sei hilean behineko ekonomia txostenen eskaria, Batzordearen Legearen 3.3. artikuluan jasota dagoen bezala.
4. Jaurlaritzaren baitan Batzordearen egiten den lanaren ezagutza eta garrantzia hobetzeko bideari buruzko iritzien berri elkarri ematea.

- **03/07/13 Bilera Eusko Jaurlaritzan.**

Erakunde bilera Euskadiko EGABren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren artean. Bileran Ángeles Iztueta arduradun gorena, Jon Barrutia Unibertsitate eta Ikerkuntzako Sailburuordea eta EGABko Lehendakari Rafael Puntonet eta Prentsa eta Dokumentazioko Arduradun Maje Sáez izan ziren.

Honako gaiak jorratu zituzten:

1. Batzordearen jardueren aurkezpena.
2. Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen Aurreproiektuari buruzko informazio eskaria.
3. 2003ko irailaren 29an Batzordera erakunde bisita antolatzea erabaki zuten.





*Ángeles Iztueta eta Jon Barrutia Rafael Puntoneten azalpenei adi.*

## AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN

- ***Autonomia Erkidegoetako EGABen urteko I. topaketa, Toledon, 2003ko apirilaren 3an eta 4an***

Honako EGABetako Lehendakari eta Idazkari Nagusiak bertaratu: Aragoiko EGAB, Asturiaseko EGAB, Balear Irletako EGAB, Kantabriako EGAB, Kanariar Irletako EGAB, Kataluniako EGAB, Gaztela – La Mantxako EGAB, Gaztela –Leongo EGAB, Ceutako EGAB, Extremadurako EGAB, Galiziako EGAB, Errioxako EGAB, Madrilgo EGAB, Murtziako EGAB, Nafarroako EGAB, Euskadiko EGAB, Valentziako EGAB, Espainiako EGAB eta Andaluziako EGAB.

Hona hemen autonomia erkidegoetako eta Espainiako EGABek zein gairen gainean hartu zituzten erabakiak:

– EGABen araudiaren bildumaren edizio eguneratua (1.800 ale).
– "EGABen eginkizuna XXI. mendean" azterlana egitea (EGAB sustatzaileak: Espainia, Madril, Kantabria eta Gaztela – La Mantxa).
– "CESESPAÑOLES" atariaren egoeraren eta garapenaren gaineko informazioa.
– Arku Atlantikoko Batzordeek hartutako erabakien eta egindako lanak gainbegiratzea.
– "Gizarteratzeko Politiken gaineko Azterlanaren" egoeraren txostena.
– Autonomia Erkidegoetako Gobernuek eta Estatuko Gobernuak langileen segurtasun eta osasun gaian egin litezkeen gomendioen gaineko azterlanaren proposamena.
– Lan Txostena, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeei aginduzkoa den irizpena eskatzeko betebeharra ez betetzearen ondorio juridikoen gainean.
– Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako dokumentazioaren eta prentsa kabineteen gaineko jardunaldiak.
– "Emakumearen gizarte eta lan arloko egoera" gaiaren azterlan proposamena."
– "Europako Batasunaren Hedapena: Ekonomia eta Gizarte Garapeneko ondoreak" gaiari buruzko jardunaldiak prestatzea.



- ***Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako dokumentazioaren eta komunikazioaren gaineko lehenengo jardunaldiak, Santanderren, 2003ko maiatzaren 12an eta 13an***

Kantabriako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak maiatzaren 12an eta 13an bere egoitzan EGABen dokumentazioaren eta komunikazioaren gaineko jardunaldiak antolatu zituen. Honako Autonomia Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeek hartu zuten parte: Andaluziako EGAB, Aragoiko EGAB, Asturiasko EGAB, Kanariar Irletako EGAB, Kantabriako EGAB, Gaztela – Leongo




*EGABen Dokumentazioaren eta Komunikazioren gaineko I. Jardunaldiak.*

EGAB, Gaztela – La Mantxako EGAB, Kataluniako EGAB, Valentziako Erkidegoko EGAB, Extremadurako EGAB, Galiziako EGAB, Balear Irletako EGAB, Euskadiko EGAB, Errioxako EGAB eta Espainiako EGAB.

Autonomia Erkidego desberdinen artean elkartrukerako eta komunikaziorako espazioak sortzea, elkarren eskarmentuen berri zabaltzea, dokumentazio zentro batzeko lan esparruan erabiltzen diren sistemen gaineko informazioa eta prestakuntza ematen laguntzea, etengabeko eztabaida piztea, esperientzia desberdinen bidez eta Batzordeen lana eta errealitatea herritarrengana hurbiltzeko behar diren irizpideak finkatzea izan ziren jardunaldi horietan betetako helburu batzuk. Horrez gain, honako erabakiak ere hartu ziren:

– Informazio Iturrien gaineko datutegi erkidea sortzea.
– Jardunaldi hauek urtero egiten jarraitzea, antolaketaren ardura batzordeek txandaka hartuz.
– Prestakuntzako politika erkidea burutzea komeniko litzatekeela.

• ***Autonomia Erkidegoetako EGABen urteko topaketa, Cuencan, 2003ko urriaren 15,16 eta 17an***

Gaztela eta Leongo EGAB ezik, gainerako autonomia erkidego guztietako EGABak egon ziren.

Urteko I. Topaketan jorratutako gaien egoera gainetik aztertu ondoren, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen Dokumentazioaren gaineko I. Jardunaldi-

ko amaierako txostena banatu zen, Idazkari Nagusiek uztailaren 17an Santanderren izan zuten bileraren berri eman zen, eta 2004ko urteko topaketen koordinaketa lanak Gaztela eta Leongo EGABk hartuko zituela erabaki zen.

Urriaren 16an eta 17an ""Europako Batasunaren Hedapena: Ekonomia eta Gizarte Garapeneko ondoreak" gaiari buruzko Jardunaldiak garatu ziren, Cuencako Menéndez Pelayo Unibertsitateren egoitzan.

- ***Erakunde bisita Kataluniako EGABri, 2003ko urriaren 20an***

Bisita Euskadiko EGABk eskatuta egin zen, Kataluniako EGABK ezarritako dokumentazio kudeaketako sistema ezagutu nahi baitzen. Manu Aranburu Euskadiko EGABko Idazkari Nagusia eta Maje Saéz Pentsa eta Dokumentazio Arduraduna izan ziren. Bartzelonan Kataluniako EGABko Lehendakari Rafael Hinojosak eta Idazkari Nagusi Teresita Itoizek hartu zituzten. Yolanda Salvá, Dokumentazio eta Erakundeen Arteko Harremanen Arduradunak bere erakundeko dokumentazioaren kudeaketa sistemaren aurkezpen bat antolatu zuen. Jardunaldian zehar, gainera, lan arlo bakoitzeko arduradun teknikoekin egoteko aukera ere izan zuten.





*Manu Aranburu, EGABko Idazkari Nagusia, Kataluniako EGABko Lehendakari Rafael Hinojosarekin eta Idazkari Nagusi Teresita Itoizekin izandako bileran.*

MUGAZ HARANTZAGOKO LANKIDETZA

## Bi aldeko harremanak Euskadiko EGAB – Akitaniako CESR

- ***Bilbon, 2003ko maiatzaren 15ean***

*Gaia:* bi aldeko lankidetza Euskadiko EGAB – Akitaniako CESR.

Euskadiko EGABren eta Akitaniako CESRren batzordekideen arteko bilera, EAEko eta Akitaniako Eskualdeko erakunde esparruaren berri elkarri emateko. Euskadiko EGABk, horretarako, Juan Mª Aburto Rike jaunari deitu zion, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari legez, eskumenak EAEko erakunde erkideen eta Lurralde Historikoetako erakundeen artean nola banatzen ziren hitz egin zezan.

Akitaniako ordezkaritzak bere erakunde esparruaren gaineko azalpenak eman zituen, "Eskualdearen eta Frantses Departamentuaren eskumenak. Eztabaida Egoera" goiburupean.






*Mme Rogers, Akitaniako CESRko lehendakariordeak eta Rafael Puntonet EGABko presidenteak gidatu zuten euskaldun eta akitanoen arteko topaketa.*

Turismo iraunkorraren eta lankidetzako lan metodologiaren alorrean bientzat interesgarri izan litezkeen gaiak planteatu ziren, bi erakundeen arteko lankidetzaren harremanen oinarriak finkatzera begira.

*Partaideak:* Euskadiko EGABren Batzorde Iraunkorra eta Akitaniako CESRren Lankidetzarako Batzordea, bi erakundeetako arduradun teknikoez gain.

- ***Le Teich, 2003ko urriaren 22 eta 23an***

*Gaia:* Euskadiko EGA B – Akitaniako CESR bi aldeko lankidetza

II. topaketa euskal eta akitaniar ordezkarien artean, non honako gaiak jorratu ziren:

– EAEko turismo arloaren egoeraren aurkezpena.
– Bi eskualdeen arteko turismo iraunkorraren garapenari buruzko lanaren gaiaren proposamenari buruzko ideiak elkartrukatzea.
– Akitaniako CERSren aldetik Lankidetza Batzordea eta Euskadiko EGABren aldetik Akitaniarekiko bi aldeko lankidetzarako lan taldea elkartu ziren.

Lan bileraz gain, urriaren 22an, arratsaldean, Dassault abiazio enpresa ikustera joan ziren, Akitaniako industria ehunduran aeronautikaren arloak duen garrantziaren erakusgarri (30.000 lanpostu). Bisita hori Akitaniako ekonomia errealitatea hobeto ezagutzeko antolatu zuten.



## Eremu Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin

***RTA (Arku Atlantikoko Sarea)***

- ***Bordele, 2003ko maiatzaren 12an***

RTA (Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Eragileen Sarea) ofizialki eratu aurreko bilera, non sarearen jarduerak abian jartzeko egutegia eta metodologiaz eztabaidatu zen, Eremu Atlantikoko INTERREG III B Europako Batasuneko laguntza onestear zegoela ikusita.

Normandia Garaiko, Normandia Behereko, Bretainiako, Erdialdeko, Loira Lurraldeko, Poitou-Charentes-eko, Limousín-eko, Akitaniako, Midi- Pirénées-etako, EAEko, Kantabriako, Galiziako, Kanariar Irletako eta Lisboako Eskualdeko EGABak bildu ziren.

- ***Bilbo, 2003ko irailaren 19an***

Eremu atlantikoko eskualdeen Ekonomia eta Gizarte Eragileen Sarea irailaren 19an eratu zen, Bilbon.

Bere ibilbidea ofizialki inauguratzeaz gain, Sareak erabaki garrantzitsuak ere hartu zituen, besteak beste, bere erakundeen eraketari buruzkoak (Orientazioen Batzordea, Lehendakaritza, Bureau edo Batzorde Exekutiboa), eta kideak izendatu eta ardurak banatu eta Sarearen lan gaiak zehaztu ziren.

*Sarearen erakundeak:*

— Orientazioen Batzordea: Sarearen erabaki-erakundea gorena. Erabaki estrategikoak hartzen ditu, baita Sareak lant aldeek proposatuta prestatzen dituen iritzi, txosten, proposamen eta abarrak ere. Sareko kide diren EGAB bakoitzeko kide bat dago batzordean.

— Lehendakaritza: Orientazioen Batzordeak hautatzen du, urtebeteko epeetarako. Eztabaidetan buru eta zuzendari aritzen da, eta Sarearen ordezkari izaten da gainontzekoena urrean. Oraingoan Akitaniako CESRko Lehendakari M. Marcel Cazalé ater azen.

— Sarearen Bureau edo Batzorde Exekutiboa. Lehendakaria eta Sarean ordezkatuta dagoen herrialde bakoitzeko lehendakariorde bana daude. Hartara, bureau hori honelaxe eratuta geratu zen: Cazalé lehendakaria eta lehendakariordeak Puntonet (Euskadiko EGAB), Palmer (Galeseko Foro Ekonomikoen lehendakaria), eta Portugaleko lehendakariordea izendatu gabe geratu zen Sarean parte hartzen duten portugaldarrak ados jar daitezen arte.






*Marcel Cazalé, Akitaniako CESRko Lehendakariak RTAren lehendakaritzaren ardura hartu zuen. Rafael Puntonet lehenengo lehendakariorde izendatu zuten.*

*Aztergaiak*

— Garraioaren irismena (itsas garraioaren segurtasuna barne).

— Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologia transferentzia Eremu Atlantikoan.

*Finantzaketa*

RTAri %59,03 Europak finantzatzen dio (Eremu Atlantikoko INTERREG III B egitaraua).

*Kideak*

Hona hemen sareko kideak: Euskadiko EGAB, Kanariar Irletako EGAB, Kantabriako EGAB, Galiziako EGAB, CESR d ´Aquitaine, CESR de Bretagne, CESR de Limousin, CESR des Pays de la Loire, CESR de Poitou-Charentes, CESR du Centre, South West Wales Economic Forum, AERLIS (Uniao das associaçoes Empresariais da Regioao de Lisboa) eta Uniao dos sindicatos do Algarve/CGTP.



*Kide diren 13 erakundeen ordezkariak, RTAren eraketa ofizialaren ostean.*



- ***Bordele, 2003ko azaroaren 7an***

RTAko Bureau-aren bilera.

Bureau edo batzorde exekutiboak bi lan taldeak eratu zituen. Jarraituko zen metodologia ere onetsi zuten.

Komunikazio Batzorde bat ere eratzea onetsi zen, Sareko Lehendakaria, koordinatzailea, eta Akitania eta Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio arduradunak osatuta. Bilera berean Sarearen logotipoa ere onartu zen.



*Bureau-aren bileraren argazki partziala.*



## *Arku Atlantikoko Batzordearen Biltzar Nagusia*

- ***Inverness (Eskozia), 2003ko ekainaren 20an***

Europako Itsasaldeko eta Periferiako Eskualdeen Konferentziaren Arku Atlantikoko Batzordearen biltzar nagusia (Konferentziako kide Batzordean dauden eskualdeetako agintaritzen ordezkari formalak dira, eta bertan eskualde horietako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeek, eta eremu atlantikoko ekonomia eta gizarte eragileen sareak, hala nola, RTAk edo Arku Atlantikoko Hirien Konferentziak edo Arku Atlantikoko Nekazaritza Ganbaren Elkarteak ere parte hartu ohi dute.

Bileran, Euskadiko EGABren aldetik Rafael Puntonet Lehendakariak eta Azterlan eta Proiektuen Arduradun Arantza López de Munainek parte hartu zuten.

EAEren ordezkari modura, Jaurlaritzako Lehendakariaren Kanpo Harremanetarako Mandataria eta Garraio eta Herri Lanen Sailburu Alvaro Amann ere izan ziren. Azkeneko hau bileraren gai nagusiaren aurkezpena zela-eta joan zen: Batzordearen garraio taldearen koordinatzaile den Arku Atlantikoko Batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren aitzindaritza pean, egindako Garraioen Europan Zeharreko Sareak ikuskatzen dituen lana.

***Short Sea Shipping sustatzea Eremu Atlantikoan***

- ***Bilbon, 2003ko otsailaren 20an***

Short sea shipping sustatzeko Europako egitasmoa prestatzeko azkeneko bilera, Eremu Atlantikoko INTERREG III Brako hautagai aurkeztu baino lehen. Aurkeztekoa zen egitasmoaren azalpenen dokumentazioa prestatzen amaitu zen, eta kideak nortzuk izango ziren eta nola parte hartuko zen zehaztu zen. Egitasmo hori itsas garraiora alda litezkeen merkantzien fluxuen, itsas linea berrien bideragarritasunaren, mota ugariko garraioko katea esperimentala sortzearen eta itsas garraioaren ingurumen abantailen hedapenaren gaineko merkatu azterlana egitean datza.

*Partaideak:* Eusko Jaurlaritzako, Euskadiko EGABko, Bilbo, Pasaia, Gijoneko portuetako, Akitaniako Eskualde Kontseiluko eta Gloucestershire Country Council-eko ordezkariak.

- ***Bilbon, 2003ko azaroaren 17an***



Egitasmoaren egoera gainbegiratzeko eta Eremu Atlantikoan short sea shipping sustatzeari buruzko azterlanaren kontratuaren lizitaziorako baldintzen plegua zehazteko bilera.

Partaideak: Eusko Jaurlaritzako, Euskadiko EGABko, Bilbo, Pasaia, Gijóneko portuetako, Akitaniako Eskualde Kontseiluko eta Gloucestershire Country Council-eko ordezkariak.

***Lankidetza Europako eta nazioarteko beste EGAB batzuekin***

- ***Santo Domingo, 2003ko urtarrilaren 24a – otsailaren 3a***

*Gaia:* Alorkako bilerak Errepublika Dominikarrean Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea finkatzeko.

Errepublika Dominikarreko Lanerako Estatu Idazkariak gonbidatuta, Euskadiko EGABko Rafael Puntonetek hainbat lan bileratan hartu zuen parte, eta gure EGAB eredua eta jarduerak aurkezteko aukera izan zuen.

Alorkako lau bileratan parte hartu zuen, beren herrialdean Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde bat sortzearen gainean eztabaidatzen ari ziren Errepublika Dominikarreko ekonomia eta gizarte eragileekin, eta Euskal Autonomia Erkidekoaren antzeko batzorde bat eratzeko aukera aztertu zuten.

- ***Maiatzaren 21,22 eta 23an, erakunde bidaia Belgikara***

Maiatzaren 21, 22 eta 23an, Euskadiko EGABren ordezkaritza bat, hots, Rafael Puntonet lehendakaria, Manu Aranburu Idazkari Nagusia, Maje Saéz Prentsa eta Komunikazio Arduraduna eta Arantza López de Munain Azterlan eta Proiektuen Arduraduna, Belgikara joan ziren, beren ekimenez, herrialde hartan egoitza duten

erakunde maila desberdinen mendeko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde desberdinak ikusi eta ezagutzera.

Zehazki, Europako Batasuneko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordearekin, Belgikako Estatuko Ekonomiako Kontseilu Nagusiarekin, eta Flandes, Wallonia eskualdeko eta Brusela hiriburuko eskualdeko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin lan bilerak izan zituzten. Topaketen bira Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen ordezkaritzaren egoitzarako bisitarekin osatu zen.

Izandako bileren helburuak elkarren Batzorde eta Jarduerak, eta dauden erakunde, gizarte eta ekonomia ehundurak ezagutzera bideratu ziren. Ikusitako erakundeetako bakoitzarekin lankidetzarako dauden ahalbideak arakatuz iren. Horretarako, Euskadiko EGABren ordezkaritzak bilera bakoitzean beren Batzordea aurkeztu zuten, baita Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta gizarte eta ekonomiako funtsezko alderdiak ere, eta Euskadiko EGAB zein lankidetza esperientziatan murgilduta dagoen azaldu zuten, beste eremu geografiko eta interes erkideko beste arlo batzuetan ere halako esperientziak gauza litezkeelakoan.





*Patrick Venturini Europako EGABko Idazkari Nagusiak euskal ordezkariak hartu zituen.*



